

Iruñerriko Mankomunitatearen Mikrobideoen I. Lehiaketa 2021

Iruñerriko Mankomunitatearen Mikrobideoen I. Lehiaketa 2021. OINARRIAK

ANTOLATZAILEA

IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. sozietateak -Iruñeko Chinchilla Jeneralaren kalearen 7an du helbidea (Nafarroa) eta A31118441 zenbakiko IFZ- mikrobideoen bere lehen lehiaketa antolatu du.

GAIA

Lehiaketa honetarako aukeratutako gaia Iruñerriko Mankomunitateak lantzen dituen esparruetakoren bat irudikatzea da: hondakinak, mugikortasuna, Ibai Parkea, ingurumen-sentsibilizazioa edo ura. Aurkezten diren bideoak ez dira aurretik kaleratutakoak izango. Era berean, ez dira inolako sari jasotakoak izango.

HELBURUAK

Lehiaketaren asmoa da Iruñerriko Mankomunitateak lan egiten duen esparruen gainean erabiltzaileek duten ikuspegia ezagutaraztea, bere balorazioa eta gai hauei bideo baten bidez forma emateko modua erakusteko.

PARTE-HARTZAILEAK

Iruñerrian bizi diren pertsona guztiek parte har dezakete. Lehiaketan parte hartze hutsak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea.

TEKNIKA ETA AURKEZPENA

Edozein motatako bideoak onartuko dira, bertikalki edo horizontalki grabatuak, eta gehienez ere 30 segundoko iraupena dutenak. Edozein teknika edo prozedura digital onartuko da, koloretan edo zuri-beltzean. Bideoarekin batera mezu bat aurkeztuko da, eta bertan izenburua, eta egilearen izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa idatziko dira.

BIDEOAK EMATEA ETA BOZKETA

Parte-hartzaile bakoitzak bideo bat aurkezteko aukera izango du. Whatsapp bidez bidaliko da, 605 69 51 72 zenbakira.

Antolatzaileek bere egiten dute lanak onartzeko edo baztertzeko eskubidea, planteatutako gaietara egokitzen diren edo ez edo pertsonak errespetatzen dituzten edo ez kontuan izanda.

Bideoak 2021eko martxoaren 5a eta apirilaren 21a artean hartuko dira. Aurkeztutako lanen herri-bozketa egingo den datak 2021eko apirilaren 24tik aurrerakoak izango dira, Atarrabiako San Andres Errotako proiektzio-aretoan.

IRUZURRA KONTROLATZEKO SISTEMA

Lehiaketaren antolatzaileak jakinarazi nahi du lehiaketako parte-hartzaileen aldetik jasotako botoen baliozkotasuna egiaztatuko duela. Iruzurrezko botoak detektatu edo erregistratzen badira, bideo hori baztertuta geldituko da herri-bozketako sarirako.



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

ERABAKIA

Behin amaitu denean botoa emateko epea, antolatzaileak harremanetan jarriko dira irabazlearekin, telefonoz, sariaren xehetasun guztiak emateko.

SARIAK

Sari bakarra dago:

- Bi pertsonentzako egonaldia gau batean Iratiko oihanean, zurezko iglu batean (Irtati Barnean). Txartel bat emango zaio irabazleari, komeni zaion egunetarako erreserba egiteko, betiere libre badago.

LANEN JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileek deklaritzen dute lehiaketan aurkeztutako lanen egileak direla. Lanak lehiaketa honetan aurkeztuta parte-hartzaileek IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A. sozietateari lagatzen dizkiote bideoak ustiatzeko eskubideak, bereziki, erreproduzitzeko, eraldatzeko, komunikazio publikoa egiteko eta banatzeko eskubidea, mundu-mailako esparru baterako, legeak baimendutako denbora maximoan eta oinarri hauek onartzeko unean dagoen edozein ustiapen-modalitatetarako.

Parte-hartzaileek beren gain hartuko dute beste batzuek beren lanen gainean eskubiderik ez izatea. Antolatzaileek, bere aldetik, beren lana erreproduzitzen den bakoitzean egileen izenak adierazteko konpromisoa hartzen dute.